

EHUko IKASLE KONTSEILUAK JARDUERA AKADEMIKOAREN NORMALTASUNA NABARMENDU DU ETA UNIBERTSITATEA GORROTO-DISKURTSORIK GABEKO ESPAZIOA IZAN BEHAR DELA BERRETSI DU

Kontseiluak argitu du bere jarrera beti irakaskuntzaren kalitatea defendatzera bideratu dela, eta jardunaldia normaltasunez garatu dela azpimarratu du.

Puedes leer la nota de prensa [aquí](#).

2026ko otsailaren 23a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak adierazi du online jarduera akademikoa, oro har, normaltasunez garatu dela, jasotako informazioaren arabera.

Ikasle Kontseiluak neurriak irakaskuntzaren kalitatean eta ikasleek aurrez aurreko prestakuntza jasotzeko duten eskubidean izan zezakeen eraginari buruzko kezka adierazi zuen, irakaskuntzaren defentsa bermatzeko duen ardurarekin bat etorritz. Hausnarketa horrek ez zuen erabakiaren gaineko zalantza instituzionalik suposatzen, baizik eta jarduera akademikoaren normaltasuna lehentasun izan behar dela berrestea. Jardunaldiaren testuinguru zehatzean, neurria salbuespenezko jarduketa gisa uler daiteke, fakultateen barruan gerta zitezkeen tentsio posibleak saihestera bideratua.

Ulertzen dugu neurri puntuala izan dela, unibertsitatearen ohiko dinamikatik kanpoko deialdi baten ondorioz eta Campusetik gertu planteatutako testuinguru berezi batean hartua. Hala ere, uste dugu irakaskuntzaren birtualizazioa ez dela erantzun ohiko edo errepikakor bihurtu behar, eta ahal den guztietan aurrez aurreko irakaskuntza eta jarduera akademikoaren normaltasuna bermatu behar direla.

Iñigo Ugedo EHUko Ikasle Kontseiluko presidenteak adierazi duenez: *«Hasieratik argi izan dugu gure jarrera: kalitate akademikoa eta Campusetako bizikidetza defendatzea. Ez gaude ohiko ekitaldi politiko baten aurrean, baizik eta eskuin muturraren deialdi baten aurrean, unibertsitate-komunitatea zuzenean interpelatu eta probokatzen duen testuinguru eta kokapen batean planteatua. EHUk espazio kritiko, plural eta gorroto-diskurtsorik gabekoa izaten jarraitu behar du».*



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Ikasle Kontseiluak berriz ere berretsi du unibertsitate publiko demokratiko, plural eta bizikidetzarekin konprometitutako baten aldeko bere konpromisoa.

EHUko Ikasle Kontseilua

PRENTSA OHARRA



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua